



39 Miatze-jarduera

- Pertsona bakoitzak mundua ulertzeko eta gertatzen dena interpretatzeko bere modua duenez (norbere iritziak eta askotariko jokaerak), elkarrekin bizitzean ohikoa da gatazkak sortzea. Azter dezagun **nola konpon daitezkeen gatazka horiek**, gizartearen mesedean.

1. Antzuolan Mairuaren Alarde tradizionalak eragindako gatazka konpontzen ahaleginduko gara.

MAIRUAREN ALARDEA



Antzuolako Mairuaren Alardea herriko errito nagusia da, urtero uztaileko hirugarren igandean ospatzen dena. Koreografia anitza du: armadunen eta musikarien desfilea, su hutsezko fusil tiroak eta kanoikadak, abesbatzak kantatutako bertsoak, herriko banderaren entrega, diskurtsoa eta antzezen bat. Antzezenaren protagonista errege mairu bat da. Preso dago, eta, herriari berriro eraso ez diola egingo agindu ondoren, aske geratuko da. Bertako kondairak dioenez, Erdi Aroko gudu batean antzuolarren konpainiak garaipena lortu izana ospatzen da alardean. Antzuolan alardeari buruzko askotariko iritziak zeuden eta horrek gatazka eragin zuen. Batzuk alardearen aldekoak ziren eta ohiturak aurrera egin behar zuela zioten, arrazoi historikoak medio. Beste batzuek alardearen gizalegezko balioak zalantzan jarri zituzten: mairuekiko herra, militarismoa... Horrez gain, nagusiki kutsu militarra zuen ikuskizunak ez zituen gazteak erakartzen eta urteroko alardea ospea galduz joan zen pixkanaka.





- a) Gatazka bat konpontzeko lehen pausoa **gatazkaren elementuak ikuspegi guztien arabera identifikatzea** da. Horretarako, binaka, irakurri informazioa eta osatu taula, Iñigo Ramirez de Okariz eta Pilar Etxanizen testigantzak jasotzen dituen bideoaz baliatuz.

Gatazkak

Gatazkak bi pertsona edo gehiago bat ez datozen edo elkarren aurka dauden egoerak dira, beren ikuspegiak, interesak, beharrak, nahiak edo balioak ezberdinak direlako. Gatazkaren aldeen arteko harremana indartu ala ahuldu daiteke, gatazka konpontzeko prozesuaren arabera. Gatazkak ohikoak dira gizartean, baina irtenbidea ez da arazoak ezkutatzea, horiek nola konpondu jakitea eta, modu baketsu eta zuzenean, gatazkan nahasitako guztien mesedean konpondu ahal izateko estrategiak erabiltzea baizik.

Gatazkak konpontzeko garrantzitsua gatazkaren ikuspegiak ulertzea eta adostasuna lortzeko pausoak ematea da. Horretarako, alde bakoitzak bere arazoak irmo eta zuzen azaldu behar ditu, bere eskubideak eta iritzia defendatuz, baina erasokor izan gabe.

GATAZKAREN ELEMENTUAK	R. de Okarizen TESTIGANTZA	Etxanizen TESTIGANTZA
GATAZKAREN PERTZEPZIOA Zer gertatu zen? Zerk eragin zuen arazoa?		
EMOZIOAK ETA SENTIMENDUAK Nola sentitzen ziren egoera honetan? Egoerak nola eragiten zien emozionalki?		
IKUSPEGIAK Nola erantzun zuen alde bakoitzak? Zer nahi zuten edo zer eskatzen zuten?		
INTERESA ETA BEHARRAK Zergatik zen garrantzitsua eskatzen zutena? Zergatik behar zuten eskatzen zutena?		
BALIOAK Haien balio edo eskubideetatik zein hausten zuen arazo honek?		

John Paul Lederach-en *Elements for the resolution of conflicts* lanean oinarritua, 1990

2. Hurrengo pausoa zure ikuspegia asertiboki azaltzea da, eta, besteen argudioak entzun ondoren, horiek kontra-argudiatzea.

- a) Batu bi bikote eta erabaki zer bikotek zer ikuspegi defendatuko duen. Bikote bakoitzak hiru argudio idatzi behar ditu dagokion ikuspegia defendatzeko.
- b) Trukatu argudioak beste bikotearekin eta, aurkarien argudioak irakurri ondoren, kontra-argudiatu, ondorengo adierazpenak edo 30. jardueran ikasitako esamoldeak erabiliz. Gogoan izan zure ideiak asertiboki defendatu behar dituzula, baina, era berean, beste ikuspegia ulertzeko gai izan behar duzula.
- Zera esan nahi dut...
 - Ados, hori onartu behar dugu, baina...
 - Egia esan, ...
 - Ez nago hain ziur...
 - Hain justu, horrek agerian uzten du beharrezkoa dela...
 - Aintzat hartu behar duguna zera da...





3. Amaitzeko, lauko taldetan, aurkitu gatazka konpontzeko balio dezaketen elementu komunak eta, ondoren, erabaki zer egingo zenuketen Mairuaren Alardearekin. Zuen ustez, alardea egiten jarraitu beharko lukete ala ez? Baietz uste baduzue, nola? Zer ezaugarri izan beharko lituzke (nork hartu behar du parte, zer balioekin...)?

4. Jakin dezagun gatazka benetan nola konpondu zen. Ikusi bigarren bideoa, galdera hauei bakarka erantzuteko.

- Zein izan zen konponbidea? Zure konponbide-proposamenaz bestelakoa al da?
- Margaret Bullen** konponbidean parte hartu zuen gizarte-antropologoaren arabera, zer pauso eman ziren?
- Zer erabaki hartu zituzten gatazkaren bi ikuspegiak?
- Margaret Bullenen arabera, zer jokaera dira funtsezkoak gatazkak konpontzeko?
- Zure ustez, konponbidea onuragarria da alde guztientzat?

DOZENA OSATUZ

ideologia
berdintasunik eza
ezkerra
eskuina
zergak
identitatea
balioestea
gizarte ideala
iritzia
alde partehartzaileak
konponbidea
bidezkoa



40 Egituratzte-jarduera

☰ Bakarka, hautatu ondoko testuan hitzik egokienak azken atal honetan landu ditugun **kontzeptuak hobeto zeureganatzeko**.

Ikasi dugunez, arauak behar ditugu bizikidetz/betebeharrak hobetzeko.

Legeek hainbat helburu dituzte, hala nola erantzukizun soziala/ekonomikoa, ordenari/ikas-
ketei eustea eta giza eskubideak/erantzukizunak errespetatzea.

Legeak bidegabeak badira, gizarte zibilak/militarrak hainbat bide ditu lege horiek aldatzen
saiatzeko, adibidez, manifestazioak edo sinadurak biltzea.

Gizarte zibilak bizimodua hobetzeko erabakietan zuzenean parte hartzen badu, demokrazia
ordezkatzailea/parte-hartzailea deritza.

Gizarte zibilak ordezkari politikoak hautatzeko bozkatzuz soilik parte hartzen badu, demo-
krazia ordezkatzailea/parte-hartzailea deritza.

Pertsonen iritzi berdinak/desberdinak dituzte, guztiok ez dauzkagulako bizipen eta espe-
rientzia berberak.

Gure iritzi politikoak gure identitatearen/ikasketen parte dira.

Elkarrekin bizitzean, gizarteari buruzko iritzi eta balio berdinak/desberdinak ditugunez,
ohikoa/ezinezkoa da gatazkak sortzea.

Gatazkak bide positiboak/negatiboak izan daitezke elkarbizitzarako, alde guztien mesedean
adostutako irtenbideak aurkitzen asmatuz gero.

Gatazkak konpontzeko, lehen/azken pausoa gatazkaren elementuak ikuspuntu/alderdi po-
litiko guztiak aintzat hartuta identifikatzea da.

Ondoren, alde bakoitzak bere iritzia argudioak asertiboki azaltzeko/marrazteko gai izan
beharko luke, eta, besteen argudioak entzun ondoren, kontra-argudiatzeko gai, betiere
besteen iritziak aintzat hartuz.

Azken pausoa alde guztien arteko ideia komunak topatzea da, gatazkan nahastutako alde
guztiak/batzuk asebeteko dituen konponbidea lortzeko.

